 INGURUMENA	Espedientea: Aldi baterako personal kontratazioa kontratazioa
	Espediente kodea: 2026ABPK0012
	Arduraduna: Debagoieneko Mankomunitatea
	Gaia: Zuzeneko hondakin bilketarako txofer-zamaketariak, presazko prozedura eta LANBIDE bidez, aldi baterako kontratatzekeo deialdia

ZUZENKO HONDAKIN BILKETARAKO TXOFER-ZAMAKETARIAK, PRESAZKO PROZEDURA eta LANBIDE BIDEZ, ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIAREN OINARRIAK

TXOSTEN TEKNIKOA

IKUSIRIK

LEHENENGOA.- Debagoieneko Mankomunitateko Ingurumen Zerbitzuak **txofer-zamaketari posturako langileak kontratatzekeo urgentziatzko beharra** du, besteak beste, mediku bajak ordezkatu eta datozen aste-hilabeteetan opor garaian izango diren gainontzeko beharrei erantzun eta zuzeneko hondakin bilketa zerbitzua bermatu ahal izateko.

BIGARRENA.- Mankomunitatearen 2021ko urriko txofer-zamaketarien lan poltsa ofiziala agortuta dago, eta inguruko Mankomunitateetan, zein Eusko Jaurilaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundian egindako kontsulten ondotik, ez da behar horiek asetzeko langilerik lortu.


HIRUGARRENA.- 190/2004 Dekretuak, urriaren 13koa, euskal herri administrazioetako funtzionarioen lanpostuak betetzeko araudia onartzeko denak, bere 58. Artikuluan ondorengoa zehazten du:

“1– Bitartekoen hautaketa egingo da gai horri buruz administrazio bakoitzak ezartzen dituen arauen arabera. Hautatzeko prozedurek, berdintasun, ageritasun, meritu eta gaitasun printzipioak bermatzen dituzten irizpideak izango dituzte oinarri, aldi berean irizpideok prozedura horiek ahalik eta zaluena izatea bideratzen dutela.

2– Berariazko araurik ez badago, hautaketa oro har egingo da funtzionario izateko edo aldi baterako enpleguaren poltsak eratzeko, izandako hautaketa prozesurik gainditu dutenen artean.

3– Giza-baliabideen kudeaketa eraginkorrari eragozten ez dion heinean, euskal herri administrazioek elkarri elkarlana eskainiko diote, bitarteko funtzionarioak izendatzeko xedez beren lan-poltsetan sarturiko langileak maileguan utziz.

4– Izangaiak hartzeko premiarik edo zailtasunik baldin badago, salbuespen bezala eta justifikaturiko memoria bitarteko delarik, enplegu zerbitzu publikoetaz baliatzeko aukera egongo da.”

 INGURUMENA	Espedientea: Aldi baterako personal kontratazioa kontratazioa
	Espediente kodea: 2026ABPK0012
	Arduraduna: Debagoieneko Mankomunitatea
	Gaia: Zuzeneko hondakin biltetarako txofer-zamaketariak, presazko prozedura eta LANBIDE bidez, aldi baterako kontratatzeke deialdia

LAUGARRENA.- Mankomunitatearen 2021ko urriko txofer-zamaketarien lan poltsa ofiziala agortuta dago, eta inguruko Mankomunitateetan, zein Eusko Jaurlaritzan eta Gipuzkoako Foru Aldundian egindako kontsulten ondoren, ez da behar horiek asetzeko langilerik lortu.


Hori guztia kontuan izanda, HONAKOA PROPOSATZEN DA:

LEHENENGOA.- Aparteko inguruabarrak gertatzen direlako eta premia larria dagoelako hondakinen bilteta zerbitzuko gidari-zamaketari postua betetzeko, 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena, 11. Artikuluaren arabera, **lan eskaintza LANBIDE Euskal Enplegu Zerbitzuaren bitartez egitea**, eta Enplegu Zerbitzu Publikoak jakinarazitako lan kategoria horretako hautagaiak aukeratzea.

BIGARRENA.- Lanpostuaren ezaugarriak:

Lanpostu honen ezaugarriak ondorengoak dira (gaur egun Mankomunitatean indarrean dauden Lanpostuen Zerrenda eta Plantilla Organikoan oinarrituz):

- **Lanpostua:** Laneko Pertsonal Finkoarentzat gordetako Txofer-Zamaketari lanpostua.
- **Sailkapen taldea:** TP (Taldea Profesionala).
- **Eskatutako titulazioa:** EZ (Eskola Ziurtagiria), "C" gidatzeko baimena eta GPA-CAP (Gaitasun Profesionalaren Agiria-Certificado de Aptitud Profesional).
- **Eskatutako Hizkuntz Eskakizuna:** 1. Hizkuntza Eskakizuna.
- **Eguneko jardunaldia:** 7:08 ordu (%100).
- **Ordutegia:** ohikotasunez 7:37 – 14:45tara, baina garbiguneko kamio zerbitzua egokitzen zaionean (9 astetik behin) 8:52 – 13:00tara eta 15:00 – 18:00tara.
- **Lanpostuaren kokapena:** San Balerioko instalazioak (Meatzerreka 6, Arrasate).
- **Lan kontratu mota:** aldi baterakoa, ezintasun egoerak edo bestelako ordezkapenak irauten duten bitartean.
- **Hileko soldata gordina:** gidari-zamaketariei dagokiena (2.546,08 €/hileko)
- **Lanpostuaren eginkizunak:**
 - Hondakinak biltzeko ibilgailuak gidatzea, eta kamioiaren barneko zein kanpoko mekanismoak erabiltzea, zerbitzu bakoitzerako zehaztutako ordutegian. Hondakinak biltzeko zerbitzuek Mankomunitateak etxeetako, dendetako eta ostalaritzako, industriako, garbiguneetako eta abarretako etxeko hondakinak jasotzeko gaur egun


 INGURUMENA	Espedientea: Aldi baterako personal kontratazioa kontratazioa
	Espediente kodea: 2026ABPK0012
	Arduraduna: Debagoieneko Mankomunitatea
	Gaia: Zuzeneko hondakin bilketarako txofer-zamaketariak, presazko prozedura eta LANBIDE bidez, aldi baterako kontratatzekeo deialdia

duen edo izango duen ibilgailu-flota osoa hartzen dute (garbiguneetako kamioia barne).

- Bilketa taldeak Mankomunitateko arduradunarekin edo zerbitzu zentralekin izan beharreko komunikazioez arduratzea.
- Mankomunitateak ezarritako eredu erabiliz lan-partea betetzea.
- Zamaketariak egindako kamioiaren garbiketari onspena ematea, eta bakarrik lan egiten badu, kamioia berak garbitzea.
- Zamaketariak egindako edukiontzietako hondakinen bereizketa egiaztatzea, edukiontzia jaso gabe utzi aurretik.
- Egin beharreko ibilbidean jaso daitezkeen edukiontzia kodetzeaz arduratzea, eta sortutako gorabeherak erregistratzea.
- Lan-tresnen funtzionamendu egokiaz arduratzea (ibilgailuak, kodetzeko aparatuak, telefono mugikorak, GPSak, etab.).
- Mekanikariari jakinaraztea ibilgailuak izan dezakeen edozein kalte edo matxura.
- Bilketa taldeak bere lana segurtasunez egiteaz arduratzea.
- Arduradunak esleitutako beste zeregin batzuk, lanpostuaren edukiarekin lotuta badaude.

Lehentasunez, txofer/zamaketariak arestian deskribatutako funtzioak egingo dituzte, baina, beharrezkoa denean, honako zamaketari-eginkizun hau ere egin beharko dituzte:

- Hondakinak biltzeko ibilgailuak dituen kanpoko mekanismoak erabiltzea.
- Edukiontzia jasogailuan kargatu eta, deskargatu ondoren, bere lekuan uztea.
- Beharrezkoa bada, zabor-poltsak ibilgailuaren toberan eskuz kargatzea.
- Zerbitzua amaitzean kamioia garbitzea.
- Garbigune ibiltaria leku batetik bestera eramatea, eta garbiguneko langileari hondakinak deskargatzen laguntzea.
- Garbigune ibiltariaren mantentze-lanak egitea (garbiketak, konponketa sinpleak, etab.).

 INGURUMENA	Espedientea: Aldi baterako personal kontratazioa kontratazioa
	Espediente kodea: 2026ABPK0012
	Arduraduna: Debagoieneko Mankomunitatea
	Gaia: Zuzeneko hondakin bilketarako txofer-zamaketariak, presazko prozedura eta LANBIDE bidez, aldi baterako kontratatzeke deialdia

- Zerbitzua ematean hondatutako edukiontzien mantentze lanak egitea.
- Arduradunak esleitutako beste zeregin batzuk, lanpostuaren edukiarekin lotuta badaude.

3.- Hautagaiak hautatzeko, **balorazio-irizpide** hauek hartuko dira kontuan:

3.1. Beharrezko prestakuntza:

- Eskola ziurtagiria.
- C motako gidabaimena izatea, eta ibilgailuak gidatzeko inolako eragozpenik ez izatea.
- Gaitasun Profesionalaren Agiria (GPA) – *Certificado de Aptitud Profesional (CAP)*
- Euskara 1. Hizkuntz Eskakizuna (1. HE)


3.2. Merituen balorazioa (gehienez 13 puntu)

3.2.1. Prestakuntza osagarria (gehienez 3 puntu):

- Prestakuntza- eta hobekuntza-ikastaroak: 0,05 puntu orduko.
 - Ikastaroak lanpostu honen eginkizunekin zerikusi zuzena dutenak izan beharko dute: hondakinen bilketa eta garraioa, ibilgailuen mekanika, edukiontzien mantenu lanak edota lan arriskuen prebentzioa.
- B + E motako gidabaimena: 1 puntu.

3.2.2. Lan-esperientzia (gehienez 10 puntu):

- Administrazio publikoan hondakin zerbitzuko gidari-zamaketari lanetan kamioi astunekin esperientzia: 0,2 ptu/hilean.
- Enpresa pribatuan hondakin zerbitzuko gidari-zamaketari lanetan kamioi astunekin esperientzia: 0,15 ptu/hilean.
- Administrazio publikoan bestelako kamioi astunen gidari moduan esperientzia orokorra: 0,09 ptu/hilean.
- Enpresa pribatuan bestelako kamioi astunen gidari moduan esperientzia orokorra:

	Espedientea: Aldi baterako personal kontratazioa kontratazioa
	Espediente kodea: 2026ABPK0012
	Arduraduna: Debagoieneko Mankomunitatea
	Gaia: Zuzeneko hondakin bilketarako txofer-zamaketariak, presazko prozedura eta LANBIDE bidez, aldi baterako kontratatzeke deialdia

0,07 ptu/hilean.

3.3. Elkarrizketa (6 puntu):

Hautagaiei 10-15 minutuko elkarrizketa bat egingo zaie, hautagaien gaitasunak eta hautagaien lanpostuarekiko duten egokitasun maila neurtzeko.

Hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko ezinbestekoa izango da elkarrizketa fasean 3 puntu lortzea.

4.- Hautaketa prozesua:

4.1. Eskabideak LANBIDE bidez aurkezteko epea: 5 lanegun.

4.2. Onartu eta baztertuen behin behineko eta behin betiko zerrenda eta hurrenkera (merituen balorazioaren eta elkarrizketaren arabera) Debagoieneko Mankomunitateko web-orrian argitaratuko dira.

5.- Epaimahai kideak:

Hautaketa probetan epaimahai kalifikatzailea ondorengo hauek osatzen dute:

- Lehendakaria: Ingurumen Zerbitzuko Arduradun Teknikoa
- Bokalak:
 - Herri-bide Zerbitzuen Arduraduna
 - Informatzaile-teknikaria.
- Idazkaria: Ingurumen Zerbitzuko Ustiapen Arduraduna

Beharrezkotzat jotzen diren probetarako, Epaimahaiak aholkulariak izendatu ahal izango ditu.

Arrasaten, sinadura elektronikoan agertzen den datan

INGURUMEN ZERBITZUKO ARDURADUN TEKNIKOA

Maddi Altuna Odriozola